



**IKASTOLAKO KANPO ESPAZIOAREN
ERALDAKETA:
HEZKIDETZA ETA GENERO - INDARKERIAREN
PREBENTZIOA JOLASTOKIAN**



JOLAS TOKIA AMESTEN

Parte hartze prozesu batetik abiatuta, hezkuntza formalean eta ez-formalean egiten dugun lanaz gain, umeen jolaslekua eraldatu dugu, sinisten dugulako harremantzeko espazio publiko hau aldatuta neska-mutilen harremantzeko modua ere aldatuko daitekeela.

PROZESU PARTE HARTZAILEA

HASIERAKO PAUSUAK:

- Kanpo espazio eraldatzeko beharra ikusten zen (guraso ta irakasle)
- Familia guztiei bilera batera deia (batzuren atea jo zen)
- Taldea sortu



LH-ko ikasleekin eta gurasoekin diseinu lanketan.



KANPO ESPAZIOAREN GARRANTZIA

Hezkidetzatza:

- Futbol eta baloi bako egunak
- Jolastokiko marrazkiak



HIRU ZUTABE

PARTE
HARTZEA

NATURA

HEZKIDETZA

IKASTETXEETAKO JOLAS GUNEAK

“El uso que se hace de patios, pabellones de deportes, espacios de convivencia y aulas, por parte de alumnos y alumnas. Es una realidad muy extendida que el centro de los patios se esté usando por poco número de alumnos para deportes de balón y que el resto de alumnos y casi todas las alumnas ocupen la periferia de las canchas”.

Marian Moreno.

ZELAKO JOLAS TOKIA NAHI DUGU?

Honela jasota dago gure Hezkuntza Proiektuan Elkarbizitza- Hezkidetza atala:


“Kurutziaga ikastolak... emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra sustatzeko konpromisoa hartu du; horrenbestez, hezkuntza ez-sexistaren aldeko hautua egiten du, eta curriculum guztietan zein curriculumetik kanpoko arloetan genero-ikuspegia txertatzeko hautua egiten du”.

ETA KIROLA. ZER ESKAINTZEN DUGU?



Esku Pilota	5, 6 eta 7 urte LH3tik aurrera Ezkurdin
Multikirola	LH 2 eta 3
Atletismoa	LH 4tik aurrera. Atletismo Taldearekin hitzarmena
Futbola	LH4 tik aurrera. LH5etik Tabiran LH6 tik aurrera Ezkurdi eta Kulturalarekin hitzarmenak
Saskibaloia	LH4 tik aurrera LH6 tik aurrera Tabirako
Boleibol	LH4 tik aurrera



Ikastolaren esku-hartzerik gabe SEGREGAZIO ORIZONTALA EMATEN DA.
Hau da, mutilek eta neskek kirol ezberdinetan jarduten dute.

KIROLA	TALDEA	NESKAK	MUTILAK
Pala	8	8	
Esku pilota	21		21
Multi kirola	71	38	33
Atletismoa	43	28	15
Futbola	73	3	70
Boleibola	21	21	
Saskibaloia	87	82	5 beste ikastetx.
GUZTIRA	324	180	144









ONDORIOAK

EREMU EZ FORMALEAN (ESKOLAZ KANPOKO JARDUNA)

- Eskola kiroleko datuei erreparatuz gero, mutilen parte hartzea neskena baino hiru aldiz handiagoazela konturatu ginen.

EREMU FORMALEAN

- Lehen, Jolas-orduetan futbolean jarduten ziren mutilek hartzen zuten jolas lekua. ERABILTZAILE AKTIBOAK IZAN DIRA HAUEK.
- Gainontzeko espazioak futbolean “onak” ez ziren mutilek (edo futbola gustoko ez zutenek) eta neskek okupatzen zuten. Neskak, arrisku-lekuetatik urruntzen ziren lagun taldetan bildu eta jolasteko/hitz egiteko. ERABILTZAILE PASIBOA IZANGO LITZATEKE KOLEKTIBO HAU.

GAUR EGUN



KURUTZIAGA IKASTOLA ORAIN

KURUTZIAGA IKASTOLA kanpo espazioa 1/200



Ikastolak estratosferara bidalitako
Txotxe-zundatik ateratako argazkia.
2018-apirila.

KURUTZIAGA IKASTOLA ORAIN



Ikastolak estratosferara bidalitako
Txotxe-zundatik ateratako argazkia.
2018-apirila.

PROIEKTUAREN OINARRIAK

Hezkidetza: Espazio zentralak jarduera anitzekin egituratu, guztiek aukera berdintasunez eta askatasunean gozatzeko. Talde kirolek hartzen duten espazio zentrala, beste eremu batzuetara bideratu. Hainbat jolasetarako aukera eman.



PROIEKTUAREN OINARRIAK

Parte hartzea. Haurrek *ikastola amesten* prozesuan oinarritu da proiektua, baina dinamikoa da, amaitu gabea, eta etorkizunean haurrek kudeatu, eraldatu, zaindu eta moldatzeko espazioa izan nahi du. Eskola komunitateak eta bereziki irakasleek lagundu beharko dute gaztetxoek irudikatzen duten eraldaketa prozesua.



Hareatza, berdegune eta espazio irekiak

PROIEKTUAREN OINARRIAK

Gelako jarduna eta berdinen arteko harrmena kanpo espaziora atera. Kanpo espazioa gela bihurtu.

Goiko zelaian klaseak
ematen LH-ko ikasleekin



PROIEKTUAREN OINARRIAK

Jolas librea, jolas sinbolikoa edo ez bideratua, hezkuntzaren oinarri. Ikasketa prozesuan ezinbesteko garrantzia duena.



Erreka inguruan jolasten

PROIEKTUAREN OINARRIAK

Natura eta naturarekiko erlazioa: Erreka, mendiak, landaredia... Gaztetxoek ukitu, usaindu, entzun, esperimentatu, sentitu eta jolasteko. Urte-sasoien aldaketak, eguraldia, euria... esperientziatik bizi.

Arboladian ikasleak



PROIEKTUAREN OINARRIAK

Kirol aukeran aniztasun gehiago eman. Naturarekin lotutako jarduera fisikoa eta trebatze guneak gorputz hezkuntzako jardueran barneratu.



KURUTZIAGA IKASTOLA
2018ko azaroa